


# AMEZKETA'KO PERNANDO

ALBISU ta AYERDI'tar  
ANASTASIO

LU/62 12133



Euskal Biblioteka Labayru



1011193  
LITERATURA / N. 633

# AMEZKETA'KO PERNANDO



F.M

ALBISU ta AYERDI'tar ANASTASIO'k

ISBN 84-7086-071-2

LEGEZKO GORDAILLU S. S. 35—75

© Egilleak

Esan-bearrik ez det, nere liburuxka au,  
G. Muxika'k, 1927-garren urtean argitaratu zuan  
PERNANDO AMEZKETARRA'tik, atera dedala  
oso-osorik.

Ez det, bada, nererik ezer, idazkera ta  
gertaerak-lotzeko-era baizik.

Baiñan lan onetxek egin dizkit, atsegin-  
garriagoak oraindik, nere udako opor-aldiak.

SAJOU - TARRAGONA.

1974 - Agustin deunaren biaramonean.

I

Ba'ziran aiek deadarrak...!

—Pernando...!, asarre bizian Astarbe'ko atsoak.

—Pernando...!, oiartzun-antzera Pernando'k.

—Atera itzak bei oiek...!

—Atera itzak bei oiek...!

—Edari gaiztoak galduko al'au...!

Eta Pernando'k orduan:

—Onetik edan...!

Deadar auek ausi zuten On Krixpin'en bazkalondoko loa ere.

Jeiki ta leioratu zanean, Pernando ikusi zuan bere beiak, Astarbe'ko belarditik, patxara osoan ateratzen.

—Ik bear uan, bai, berekiko esan, eta oeratu zan berriro On Krixpin, baiñan ez luzarorako.

(Pernando au ez da irudimenak sortatuko gizon bat, egiazki bizi izan zan gizon bat baizik. Amezketan jaio zan 1764-garren urteko Urrilla'ren 10'ean, eta Bengoetxea zuan bere abizena. 25 urte zitularik, 1790-garren urteko Maiatza'ren 3'ean, Sagastume'tar Maria Joxepa ar-tu zuan emazte, ta bederatzi seme, ta alaba bat, izan zituan. Etzan, bada, irudimenak sortutako gizon bat.)

—Ez dago ortarako eskubiderik, On Krixpin...!

—Zer gertatzen da, bada, Malen...?

—Zer gertatuko da, bada...? Betikoa, On Krixpin...! Erriko bazter guztiak bereak ditu, izan ere, gizon orrek, eta gure belardirik ederrenean sartu ditu, gaur ere, bere beiak... Eta etzaiozu ezar esan, parregarri utziko zaitu-ta...

Ez al'dituzu, eman dizkidan erantzunak, entzun...?

—Entzun ditut, bai, Malen. Baiñan zu-zerori ere, etzera ain-goxo-goxoa egon...! Zure «edanak galduko al'au» arek, ba'zuan, gero, edenik asko.

—Ori ere bai, On Krixpin...! Ba'nekian, bai, alproja orren laguna ziñala, ta ez dezula orren txarrik ikusi nai... Nork ekarri ote nau, ni gaur, etxe ontara...!

Eta etorri zan baiño asarreago irten zan Astarbe'ko Malen, On Krixpin'en etxetik.

—Krixpin...!, esan zion Jesus'ek gurutzetik.

—Zer, Jauna...?

—Atzoko-ortan ez aiz batere-ondo egon Astarbe'ko Malen'ekin. Arrazoi osoa zian ark, eta txakur-amorratua bezelaxe bialdu uan ire etxetik...

—Egia da, Jauna, ta ba'det orren damu. Baiñan...

—Bai, Krixpin, bai...! Pernando, Pernando dek iretzat, eta ez auzoko Prontzio. Ta bereiztasun oiek apaiz batentzat...

—Ara, Jauna...! Ez sinistu, nai ez ba'dezu, baiñan Pernando'ri zer-edo-zer esateko asmoetan jeiki naiz gaur.

—Barkatu egidak, Krixpin. Baiñan pozik entzungo nitek nik ere, Pernando'ri egingo diokan errita ori.

—Nik ez dizut galeraziko, bada...!

Eta Pernando'rengana biali zuan On Krixpin'ek bere sakristaua.

Eiz-txakurrak baiño sen ohea zuan Pernando'k gauza batzuetarako. Ta jakin zuan, jakin, amorrai ederrak jaso zituala On Krispin'ek erregalo, goiz artan. Eta etzitzaion batere gaizki-iruditu, sakristauak ekarri zion abixua.

—Noiz joan bear dezu, Pernando...?

—Etzaitte estutu, Mari Joxepa. Ondo ezagutzen ditut nik On Krixpin'en oiturak, eta oso-goiz da oraindik.

—Bai zuretzat...! Baiñan ez, goizeko seiretara-ko zutik dagoan gizon batentzat.

—Orrek ez du ezer esan nai, ta nik-neronek dakit, zergatik ari naizen luzatzen...! Norbaitek egin bear ditu emengo lanak ere... Ezin utziko dizkizut danak zuri...

—Milla esker, gizon...! Ez nuan uste, ainbeste maite ninduzunik. Baiñan milla aldiz utzi dizkidazu aitzaki txikiagoakin.

Amaikak ondo-jota zeuden, Pernando On Krixpin'enean agertu zanean, Etzan ederra izan Kattalin'ek, On Krixpin'en neskameak, egin zion arrera. Bai, ordea, Pernando'ren sudur-zuloetara sukaldetik etorri zan usaia.

—Erritan egin-bearrean arkitzen naiz, Pernando.

—Nori, ordea...?

—Zuri, Pernando.

—Neri...?

—Zuri, bai...!

—Eta zergatik, On Krixpin...?

—Zer egin zenduan atzo...?

—Ezer txarrik ez, nik dakidanik beintzat.

—Eta ondo iruditzen al-zaizu, zure beiak As-tarbe'ko belardian sartzea...?

—Nik ez nuan orrelakorik egin...!

—Neronek ikusia ukatuko al'didazu, bada...?

—Zuk ez ninduzun beiak sartzen ikusi...!

—Bai ateratzen, ordea.

—Beste gauza bat da ori, On Krixpin. Atera bai, egin nituan, baiñan sartu ez...! Eta pekatu asko baldin ba'ditut ere, nik ez det gezurrik...! Bein esan nuan bat, eta oso-gaizki irten zitzaidan. Pernando'k ez du geroztik, gezurrik esan...!

Bereala ikusi zuan Pernando'k, On Krixpin'engan sortu zuan jakin-naia, ta onela jarraitu zuan, alkarrizketa ura eguardiraño luzatu naiean.

—Nere astotxoa lagun artu, ta perira joan nintzan bein, beste askotan bezelaxe. Ta etxerako asmoetan nintzanean, lagun batzuekin topo egin nuan zoritxarrez, eta baxo-erdi batzuek edatera sartu giñan ardotege batera. Atean utzi nuan astoa.

Baxo-erdiak edan, eta atera giñanean, nere asto ori falta...!

Ez nintzan geldi egon. Goiak eta beeak jo nituan. Alperrik, ordea. Nere astoaren aztarrenik etzan iñun agiri...!

Berandu batean etxeratu nintzan. Ba'nuan Mari Joxepa'k errita egingo ote zidan bildur, baiñan etzidan galdera au besterik egin: eta astoa...?

Zerbait esan bear, eta onela erantzun nion: ara bada. Nere lagunetako batek, txaldun-bei bat erosi du. Txalak, ordea, ezin jarraitu zion beiar, ta nere astoa utzi diot, txal ori etxera eraman dezan. Biar-edo ekarriko dit ostera.

Mari Joxepa'k etzidan itzik ere erantzun.

«Matutia» jo-aurretik jeiki nintzan urrungo-goizean, eta peri-tokira joan. An etzan, nik miatu ez nuan tokirik gelditu. Baiñan alperrik dana: an etzegoan nere astorik.

Eta galdera berdiña egin zidan Mari Joxepa'k, etxeratu nintzanean: eta astoa...?

Gero ta zaillagoa egiten zitzaidan gezurra, baiñan ezin egia esan-da, onela esan bear izan nion: elbarritua dago. Bultzadaren-bat eman omen zion beiak bidean, ta erren gelditu omen zan. Nerekin etorri nai zuan gaixoak, baiñan antxen utzi bear izan det, gaizkituko ote zitzaidan bildurrez.

Eta ez al'nuan au esan, orra-nun asten dan nere asto ori arrantzaka etxeko ikulluan...! Asto madarikatua...!

—Eta Mari Joxepa'k...?

—Zer esango zidan, bada...! Gezurra asma-tzeko burua bear zala, ta ez nik, lepo-gainean

nuan lapiko zaarra. Ta bi asto zeudela güre etxean...

—Bi asto...?

—Bai, On Krixpin, bai...! Aurreko eguna ez-keroztik ikulluan zegoana bata, ta ni bestea...

—Ederki esana...!

—Ni ez dakit, ederki esana dagoan ala ez. Au da, nik dakidana: Pernando'k ez duala geroztik gezurrik esan...!

Eta Pernando'ren azken-itx auek esnatu zuten berriro On Krixpin. Aaztu ere, egin bait-zitzaion-ia, zertara ekarri zuan Pernando.

—Gezurrik ez, beraz...?

—Ez, Jauna, ez...!

—Ea nola argitzen didazun, ortaz, atzoko ori: zuk etzenituan zure beiak Astarbe'ko belardian sartu, eta zuk-zerorrek atera zenituan belardi or-tatik...

—Oso erreza da ori, On Krixpin...! Zuk ondo dakizunez, belardi orren alboan ,ba'det, nik, nere sailtxo bat...

—Belar-izpirik ez duan sailtxo bat...!

—Ori da gutxiena, On Krixpin...! Sailtxo or-tan utzi nituan, nik atzo, nere beiak. Nere saillean beraz...! Bero ere egiten zuan, eta zugaitzpe ba-tera joan nintzan gero, pipa bat erre, ta lo pixka-bat egitera.



Astarbe'ko Malen'en deadarrak esnatu nin-duen. Eta egin bear nuana, egin nuan nik orduan: ezin utziko nituan nere beiak, iñoren belardian bazkatzen...!

Itzik-gabe gelditu zan On Krixpin. Zer erantzun zezakion gizon arri...? Eskerrak Kattalin agertu zanik.

—Bi ontzi-aldi ekarri beanko dituzu gaur, Kattalin. Au ez bait-da, iñor etxetik bialtzeko, ordua, ta onentzat-aíña janari izango da beintzat.

Suak artuta, biurtu zan Kattalin sukaldera.

—Berdin gera gu beti...! Etxe ontan ez da ezer sartzen, alproja orrek jakin-gabe. Ta zerbaiten susmoa artzen duan bezein laister, emen da beti aitzaki-maitzaki... Gure amorraiak jan naiko ditu gaur..., baiñan nik pentsatuko det, zer egin...!

Eta txikienetan-txikienak aukeratu, ta aietxek eraman zituan maiera.

Pernando etzan batere arritu, Kattalin'en jokabide onekin, eta amorrai aietako bat isatsetik artu, ta bere ao-ondora eraman zuan, eta ixil-kontuak esan zizkion.

Belarri-ondora jaso zuan gero. Ta belarri-ondoa alditxo bat euki ondoren, azpillean utzi zuan berriro, baiñan ez, orrelako kiñu xelebren bat egin gabe.

Eta bat onekin egin zuana, egin zuan azpilgo amorrai bakoitzarekin ere.

Zoraturik-bezela zegoan On Krixpin, eta geiago eziñean...

—Pernando, esan zion. Esan zaidazu, arren, zertara datozen sorginkerik guzti auk...!

—Emen ez dago iñungo sorginkeririk, On Krixpin. Zuk ondo dakizun bezela, ba'det nik, Amerika-aldean, osaba bat, eta aspaldiko urteetan ez degu aren berririk izan...!

Amorraiak, berriz, igarilari onak dira, ta ba'dakite, iñoiz, urruti aietara joaten. Eta nere osabaren berri ba'ote zuten, galdetu diet orregatik.

—Eta zer esan dizute, bada...?

—Zer esango zidaten, bada...! Gaztetxoak dirala berauek, eta ez dirala oraindik ain-urrietara joan. Baiñan sukaldetan ba'dirala berauek baiño zaarragoak, eta aiek, bear bada, zer-edo-zer jakingo dutela.

Kattalin'en asarreak etzuan mugarik, eta sukaldetan utzi zituan, orduan ere, bi aundienak. Ez Pernando'k igartzeke ordea.

Eta lenengo ekarri-aldiko amorraiekin egin zituan jolas berdiñak, egin zituan auekin ere Pernando'k.

—Eta...?

—Auek ba'dute zer-edo-zeren zurrumurrua, baiñan gauza garbirik ez...! Eta auek diotenez, an-aietan asko ibilliak, sukaldean gelditu omen dira oraindik...!

—Kattalin...!, deadar egin zuan orduan On Krixpin'ek. Gizon onek, bere osabaren berri, sustraitik jakin dezan, or gorde dituzun bi amorrai oiek ekarri bearko dizkiozu.

—Bai, jauna, bai...! Ta egia esan bear baldin ba'det, atarian ikusi dedan bezein laister, pentsatu det, nork jango zituan, gaur, gure amorrai ederrak.

Eta naigabez utzi zituan mai-erdian.

—Eta oiek zer diote, bada, Pernando...?

—A...! Oso ondo dala; urte-bete barru onuntz etortzeko asmoa duala, ta ura etortzean, ez dala gaizki izango Amezketako erretore jauna... Ni bapo nago orain beintzat, eta on egingo al'didate amorraiak...!

Eta pipea sutu, ta kontu-kontari ari zirala, izugarrizko danbatekoak izan ziran On Krixpin'en etxeke atean.

—Nere billa etorriko dira, esan zuan On Krixpin'ek. Gaixoaren-bat edo...

Pernando'ren billa zetorren tratalari bat zan, eta aurpegian nabari zitzaion, zekarren asarrea.

—Lepa-ezurra ausi bear nizuke, gezurti alena...!

—Nik ez dizut zuri gezurrik esan, eta kontu diozunakin...!

—Gezurrik ezetz...?

—Ez, jauna...!

—Eta bi asto itxu saldu zizkidazun leengo-egunean.

—Egia...!

—Eta akatsik ez zutela, esan zidazun...!

—Ez, jauna...! Nik ez nizun orrelakorik esan. Akats bakarra zutela baizik: ezin zutela alkar ikusi, alegia.

—Ta...?

—Garbiago ezin esan...! Itxuak bakarrik dira, alkar ezin ikusi dutenak...! Ez al'da ala, On Krixpin...?

—Oiek ez dira apaiz baten arazoak, eta ni ba'noa emendik. Or konpon, zuek biok.

Eta eliz-aldera artu zuan On Krixpin'ek.

Orrelako beste tratu batzuek egiña zan, leen ere, Pernando.

Itxura oneko idi zaar gaixo bat eraman zuan, bein, Tolosa'ko perira. Ta osasun onekoa al'zan, galdetu ziotenean, onela erantzun zien Fernando'k.

—Txakurrak bezelakoxe osasuna du idi onek...!

Probatu nai izan zuan erosleak urrungo egunean, eta uztarrarian lotu zuan. Laister zan arnaska idi gaixoa, mingaiña aotik beera zintzilik, eta ibilli eziñik.

Asarre agertu zan eroslea Amezketan. Fernando'k ordea:

—Ez, gizona, ez...! Nik ez dizut ziririk sartu. Txakurrak bezelakoxe osasuna zuala idiak, esan nizun nik, eta egia...! Jarri zazu txakur bat lanean, eta laister ikusiko dezu aren mingaiña aotik-beera zintzilik...

—Ta...?; galdetu zion Jesus'ek On Krixpin'i.

—Nik ez dakit, zer esan, Jauna...

—Ez al'diok erritan egin...?

—Merezi al'zuan, bada...

—Baietz, esan dek leen...!

—Leen esango nuan, Jauna. Orain, ordea...

—Zer...?

—Beste bati egingo nioke orain erritan, ta ez Fernando'ri. Ta beste ori nor dan, jakin nai baldin ba'dezu, zu zerala esango dizut gaiñera.

—Ni...?

—Zu, bai...!

—Zergatik, ordea...?

—Jaungoikoa izan, eta orrelako buru-argia eman diozulako Fernando orri. Etorriko da, ordea, azken-epai-eguna ere, ta alperrik izango zera Jaungoikoa. Aurretik mututzen ez dezula beintzat, ez dezu, zuk nai bezein errez, epaituko. Ta ez daizula zuri ere, ziriren-bat sartu...!

—Krixpin...!

—Bai, Jauna, bai...! Baiñan nere lepa-gaiñeko lapiko zaar onek, ez du ezer balio, Fernando'naren ondoan...!

## II

Egia zion On Krixpin'ek, buru argiegia eman zion Jaungoikoa'k Pernando'ri, ta.

Ba'zuan Pernando'k, zorretan erositako, artaldetxo bat, eta Aduna-aldera eraman oi zuan negu-aldian.

Izan ere, ba'zan an, Pernando'ri oso-atsegin-garri zitzaion barruti bat, baiñan nagusiak etzion, negu-aldirako, saldu nai izaten.

Sartu-aldi bakoitzeko orrenbeste ordaindu bear izaten zuan Pernando'k. SARTU-ALDI BAKOITZEKO ORRENBESTE...!

Baiña, Pernando... Nola izan aiz i ain-ton-toa...? Tratu ohea etzegok egiterik...! Sartu-aldi

bakoitzean orrenbeste...! Bai, gizona, bai...! Ori dek ori, tratua...!

Eta urrengo negu-aldian etzuten eztabaida txiki-  
kienik ere ibilli Fernando'k eta barrutiko nagusi-  
ak.

—Sartu-aldi bakoitzeko orrenbeste...!

—Konforme...!

Eta Fernando'k, sartu bai, laister sartu zituan  
barrutian bere ardiak, baiñan etzitian ateratzen,  
ez egunez eta ez gauaz...

Tolosa'ko lege-gizon batengana jo zuan barru-  
tiko nagusiak.

Eta onela galdetu zion lege-gizon onek, Fer-  
nando'ri:

—Zuk, ordu batzuetarako, egun batzuetara,  
aste batzuetarako edo illabete batzuetarako artuko  
zenduan barruti ori, noski...?

—Ez, jauna, ez...! Guk ez genduan, ez ordu-  
rik, ez egunik, ez asterik eta ez illabeterik aipatu.  
Ori baiño errezagoa izan zan gure tratua: sartu-  
aldi bakoitzeko orrenbeste ta kitto! Ondo ase-  
tzen diranean, aterako ditut, bada, nere ardiak...!

Orrelako gauzetara oitua zegoalako-edo, trata-  
lariaren deadar guzti aiek, etzioten ikara-txiki-  
enik ere egin Fernando'ri. Ta ase-ase ta argi-argi irten  
zan On Krixpin'engandik, eta bere etxerako bi-  
dea artu...

—Baiñan, Fernando...! Zu emendik...?, gal-  
detu zioten, bidean, apain-apain jantzitako gazte  
batzuek.

—Zer, ba...?

—Azkarate'ko festak dituzu gaur, gizona...!

—Egia...!

Eta bere etxerako bidea utzi, ta Azkarate'ra-  
koa artu zuan Fernando'k ere. Festa-eske bait-  
zeukan barrua...!

Oraindik esan ez baldin ba'degu ere, garai  
artako bertsolaririk onenetako bat zan Fernando.  
Ta oso-ondo artuak izaten ziran bertsolariak edo-  
nun, ta jaiak zituzten errietan areago.

Fernando'ren pekatua, pobrea izatea zan, eta  
etzan, txukun-txukun jazten zan oiteako bat, izan-  
go. Ta ortik jotzen zuten, askotan; beste bertso-  
lari-lagunak.

Izan ere, aundia egin zuan, bein, Fernando'k.

«Langille-erreza» izango zan noski, ta langille-errezaren etxean, mixeria nagusi, amar ume ta emaztea mantendu bear diranean, batez-ere...!

Gau batean, eta etxeratu zanean, negarrez arkitu zituan emaztea ta amar umeak. Ez bait-zeukaten, ez jatekorik eta ez jaztekorik.

Eta Fernando'ri otzizaion, au besterik, bururatu: kanpantorrera joan, eta il-kanpaia jo.

DUM-DAM — DUM-DAM — DUM-DAM...

Etzan, esnatu etzan amezketarrik. Eta galdera berdiña zuten danak:

—Nor il ote'da, gau-erdian il-kanpaia jotzeko...?

On Krixpin bera ere, arri-egiñik gelditu zan, sakristaua eliz-atarian ikusi zuanean.

—Nor da, ba, il-kanpaia jotzen ari dan ori...?

—Nik ez dakit, jauna...!

Eta erri osoa eliz-atarian bildu zanean, orduan agertu zan Fernando.

—Errian bearrezkoena il zaigu, On Krixpin. Errian bearrezkoena...! Ta orretxegatik jo det il-kanpaia...!

—Errian bearrezkoena...?

—Bai, On Krixpin, bai...!

—Eta nor da, ba, ori, Fernando...?

—Nor izango da, bada, On Krixpin...? KARRIDADEA...! Ta orixe da Amezketa'n il zai-guna...!

Eta elizara joan, eta bere ondoren ekarri zituan, erdi-jantzirik eta goserik, bere emaztea ta bere amar umeak.

Gipuzkoa osoan zabaldu zan, noski, gertaera onen berri, ta Fernando'ren pobre-izena, leengoz-gain, aunditu zan.

Onela erantzun bear izan zion, bein, bertsolari-legun bati:

Ondo agirian dago  
errenta nere,  
Kantuz ez det nik sartzen  
poltsara urrea,  
ez da errotan ere  
karga labore;  
agirian dago bada  
naizela pobrea;  
gauza gutxi daukat nik  
etxean gordea,  
detanarekin pasa  
eiten naiz ordea...

Ametza'k, ordea, alkandora artu zion «prenda» beste bein, eta uste-gabeko erantzun jaso bear izan zuan.

Ametza'k:

Zuri egiten dizute  
iseka ta farra,  
ekarri dezulako  
alkandora txarra.

Pernando'k:

Prenda artzen dirazu  
alkandorarena  
bai dakit ez derala  
emen dan onena.  
Txarra izanagatik  
au da neronena,  
zuk ederra daukazu  
bañan besterena.

Ba'dira Pernando'k Alegi'n kantatutako beste bertso batzuek ere.

Amezketako auzorik urrena da Alegi. Ta alegitarrak bezelaxe, ba'dute amezketarrak, ere, beren gaitz-izena. «Elbiak» dira amezketarrak, eta «zintzarriak» alegitarrak.

Osto batzuek zituan zotz batekin zijoan, bein Pernando, Alegi'ko kale batean beira, ta onela galdetu zion alegitar batek:

—I, Pernando. Eskuan daramakan zotz ori, zertarako dek...? Elbiak uxatzeko...?

—Ez, gizona, ez...! Zintzarrien mingaiñak ixiltzeko...!

Gau-erdirarte-edo, egon zan beste bein Pernando Alegi'ko ardotegi batean, kanta-kantari.

Kalera irten, eta etxeraterakoan, onela agurtu zituan, ardotegi-atetik, artean barruan gelditu ziran alegitarrak:

Egundo ez du ukatu  
gure alderdiak  
ezta ukatukore  
Amezketako erriak.  
Baña nola ez gauden  
betiko etorriak,  
gabon, beste bat arte,  
agur zintzarriak.

Egi bat esango  
eta nere aoaz,  
sinistu ez dezute  
egingo benturaz.  
Agur, alegitarrak  
oraintxe bagoaz,  
naibazute jarraitu  
zintzarriak joaz...!

Arerrerarik onena izan zuan, bada, Pernando'k Azkarate'n. Eta etzitzaion, ez jatekorik eta ez edatekorik, falta izan, bertso batzuen truke.

Eta orrelakoetan, Pernando etzan ezertxorekin konturatzen, ez bizi zan egunakin, eta ezta etxean utzi zituan emazte ta amar umeekin ere.

Aari-dema sonatu bat izan zan jaialdietako bat, eta Azkoiti'ko aaria izan zan irabazle.

Zer burutaldiak jo ote'zuan Pernando, Azkoiti'ko aari-nagusiarengana joan, eta erronka jotzeko...!

Azkarate'ko idazkariak idatzi zituan jokoaren baldintzak:

Illabete-barru, ta Amezketa'ko enparantzan izango zan jokia.

Arrasto-sendoz mankatuko zan aari-jokorako plaza.

Eta plaza artatik lenengo irtengo zan aariak, aretxek galduko zuan jokia.

Festa-usai guztiak galdu ziranean, artu zuan Pernando'k etxerako bidea. Goitik-beera ari zan

euria, ta murgildua agertu zan Pernando, etxeko atarian, goizeko ordubata-aldean.

Itxia zegoan atea...!

Ondo aitzen zituan Mari Joxepa'k, Pernando'k ateari ematen zizkion dabatekoak, baiñan etzegoan irikitzeko...!

—Beste gau batek, etxetik kanpora, ez dizu kalte aundirik egingo...!

—Ez, e...? Orain ikusiko dezu, bada, zertarako gauza dan, asarratutako gizon bat...!

Eta etxe-atzera joan; arririk-aundiena baratza-ko ormatik artu, ta erreka potzurik aundienera bota zuan indar guztiaz... PLAST...!

Ots aretxek ikaratu zuan Mari Joxepa, eta...

—Ez, Pernando, ez...! Ez dezu orrelakorik egin bear, deadarka, irten zan Mari Joxepa etxetik kamixa-utsean.

Sartu zan Pernando etxean; itxi zuan ondo barrutik atea, ta, Mari Joxepa'k apeldutako oean, sartu zan goxo-goxo.

Kanpoan igaro bear izan zuan Mari Joxepa'k gau ura; euritan eta kamixa-utsean gaifera...



Etzion Mari Joxepa'k barkatu...!  
Eguna joan eta eguna etorri, Mari Joxepa'ren aotik etzan itzik ere ateratzen. Mutua zirudin...!

Bere akats-eta-guzti onbera zan Pernando, ta ezin eramán zuan Mari Joxepa'ren ixiltasun ura. Ta On Krixpin'engana jo zuan azkenean.

—Gure etxeraño etorri beanko dezu, On Krixpin...!

—Zer gertatzen da, bada...?

—Gauza onik ez, jauna...! Itza galdu duala Mari Joxepa'k, esango nuke nik.

—Itza galdu...?

—Bai, jauna, bai...! Ta ba'ditu orrela iru edo lau egun...

Zarrapastaka sartu zan On Krixpin sakristin.

—Zer dek, orrelako presakin, Krixpin...?

—Olio santuak bear ditut, Jauna...

—Nor zegok, ba, gaizki...?

—Mari Joxepa, Pernando'ren emaztea...!

—Ez nekian ezer...! Eta ain-gaizki al'zegok, bada...?

—Bai, Jauna, bai... Itza galdu du...! Ta emakume batek itza galtzen duanean...

—Ez dek beti gaixo goten...

—Zer esan nai didazu orrekin...?

—Ezer ez, Krixpin...! Baiñan ez adi bidean itto beintzat...

Izardi-patsetan iritxi zan On Krixpin Pernando'ren etxera, ta sukaldeko lanetan arkitu zuan Mari Joxepa.

Eta On Krixpin ain-estu ikusi zuanean...

—Zer gertatzen da emen. On Krixpin...? Gai-xoren-bat edo...?

Eta Pernando'k orduan:

—Barkatu, On Krixpin...! Baiñan auetxek izan dira, onek, iru edo lau egun auetan, esan dituan itz bakarrak...!

Laister zabaldu zan Gipuzkoa osoan aari-demaren berria, ta eguna etortzean, millaka asko izan ziran Amezketara etorriak.

An zegoan, lenengo aukietan, On Krixpin ere.

—Eta zer-nolakoa degu Pernando'ren aari ori, On Krixpin...?

—Ba al'datik, bada nik...? Pernando'k, aaririk zuanik ere, ez bait-nekian nik orain-artean...

—Sekulakoa izan bear du, ba, Azkoiti'ko orrek...!

Eta jokia asi baiño zerbait-leentxoago, Azkoiti'ko aariaren jabea ta Fernando agertu ziran enparantzan. Eta bien artean markatu zuten aari-jokorako plaza.

—Plaza ontatik lenengo irtengo dan aariak, aretxek galduko du jokia, zion, bein eta berriz, Fernando'k.

—Bai, gizona, bai...! erantzuten zion azkoitiarrak.

Azkoiti'ko aaria agertu zan, lenengo, plazan.

Aari betea ta bizia zan, eta takatekoka asteko prest...!

Pernando'rena, berriz...

Txistuka artu zuten danak Fernando'ren aaria.

Ba'zan ura, izan ere, aaria: zaarra, erdi-itxua ta ezur-utsa.

Lotsaren-lotsaz jeiki zan On Krixpin, eta etxera joan zan asarre.

Takateko bat naikoa izan zuan Azkoiti'ko aariak, Fernando'ren aariari lepa-ezurra ausi, ta bertan illik uzteko.

An gelditu zan Fernando, bere aari-illari triste-triste begira...!

Baiñan laister alaituko zan Fernando'ren aurpegi illun ura...!

Saltoka ekin zioten azkoitiarrak, Fernando'ren aaria, illa ikusi zutenean. Ez bait-zegoan joko bat errezago irabazterik...!

Eta beren aaria artu, ta plazatik irten ziran bezein laister, urbildu zitzaizen Fernando esanaz:

—Barkatu, baiñan nere aariak irabazi du joko au...!

—Zure aariak...?

—Bai, nere aariak...!

—Ez al'dezu, illik dagoala, ikusten...?

—Orrek ez du ezertxo esan nai. Paperak dienez, plazatik lenengo irtengo dan aariak, galduko du jokia. Ta nerea, an dago oraindik, plaza-barruan. Zuena berriz...

Joko guztiak etziran, ordea. Fernando'k-berak eratuak izaten, eta orrelakoetan ba'zekian, iñoiz, zerbait galtzen ere. Ernani'n bein... Onela zion berak beintzat:

Galdu duenak armoniñ,  
beste batzuek agoniñ,  
nik ere joan ez banintz  
obe izango niñ.

Elizara, gaueko otoitzak egitera, joan zan On Krixpin beti bezelaxe. Eta Jesus'ek gurutzetik:

—Zer-nolakoa izan dek aari-joko ori, On Krixpin...?

—Ikusi al'det, bada...!

—Arutz joan aiz beintzat...

—Egia da...! Baiñan Pernando'k ekarri duan aaria ikusi dedanean...

—Zer...?

—Etxera etorri naizela, lotsaren-lotsaz. Ura etzan aari bat eta...

—Zer uan, ba...?

—Aari izandako zerbait... Izan ere, ez du lotsik gizon orrek...!

—Eta ez dik, zergatik izan...! Berak irabazi bait-dik jokoa...!

—Ezin, ordea...!

—Bai, Krixpin, bai...! Ta berak esango dik biar, ba'zekiat-eta, arutz joateko aizela...

—Egia da...! Zerbait galdetu nai nioke-ta...

—Nik baiño mundu geiago zeukak, izan ere, Pernando'k...!

Eta plazan gelditu-ezaren penatxoak, galerazi zion zerbait loa, On Krixpin'i...!

### III

Egia zan...! Galdera bat egin nai zion On Krixpin'ek Pernando'ri ta etzan aari-jokoari buruz.

Pernando'ren etxera iritxi zanean, ordea, etzuan iñor etxean arkitu, Pernando'ren ume-gazteena baizik.

—Nun dek, aita?...!

—Aita ta ama, biak...

—Nun, ordea...?

—Alkar il, eta etxe-atzeko errekan daude...!

On Krixpin'ek etzuan, galdera geiago egiteko, astirik artu, ta laisterka batean joan zan etxe-atzeko errekarara.

An zeuden, Pernando ta biak, aurreko-egunean plazan il zioten aari zaarraren barrunbeak garbitzen.

—Zuk jakin bear zenduan, bada, On Krixpin, nere aari zaar onek «Alkar» zuala bere izena.

—Nundik jakin bear nuan nik ori. Ez bait- nekian aari-zaar orren jabe ziñanik ere...!

Beste gauza bat zan, ordea. On Krixpin'ek galdetu nai ziona.

Izan ere, beste toki askotan bezelaxe, ba'zan Amezketa'n oitura bat: txerri bat iltzen zuanak, txerri-erregaloak partitu bear izaten zituan auzo-koen artean: odolki, lukainka ta txerriki-zerbait.

Txerri-erregalo auk, ordea, ordaiñetan izaten ziran, eta onetxek kezkatzen zuan On Krixpin. Ez bait-zan, Amezketa'n, txerri-erregalorik bialtzen etzian etxerik.

Pernando'rena izango zan, denbora batean, txerri-erregalorik jasotzen etzuan etxe bakarra Amezketa'n. Ez bait-zuan txerririk iltzen, eta ordaiñik ematen...!

Txerri-koxkor bat azitzea petsatu zuan, bein, orretxegatik. Eta il ere, egun argiz il zuan, erri osoak jakin zezan.

Artu zituan, gero, ontzi batean, odolki, urdai, solomo ta abar, eta exterik-etxe asi zan Pernando.

—Bialtzen al'dituzute, zuek, txerri-erregalorik gurera...?

—Ez Pernando, ez...!, erantzun bear izan zioten danak lotsaren-lotsaz.

—Emen ez det, orduan, zorrik...!

Eta odolki, urdai, solomoakin eta abar, biurtu zan berriro Pernando etxera. Etzuan txerri-erregalorik partitu, baiñan bai, txerri-erregaloak berriro jasotzeko bideak iriki...!

Izan oi ziran, ordea, txerri-erregalorik ez-partitzearren, beren txerriak ixillean iltzen zituzten banaka-batzuek. Eta Pernando etzegoan, urte artan beintzat, erregalorik-gabe gelditzeko.

Eta jakin ba'zuan, jakin zuan, eta zelatan egon zan gau ta egun.

Eta goizeko ordubiak-edo izango ziran, ixillik ildako txerri ori, erretzen asi ziranean.

Pernando'k etzuan une bat, ere, galdu.

Sakristauarengana joan, eta su-kanpaia jotzeko agingu zion aguro, orrelako basarrian sua zagoala-ta.

Eta suaren aitzakian, bildu ziran amezketar guztiak, ixilka erretzen ari ziran txerriaren inguruan.

Txerri-erregaloetan partitu bear izan zuan, txerri osoa, nagusi gizajoak.

Eta orra, On Krixpin en kezka ere:

—Zuk ondo dakizu, Pernando, etxe guztietatik etortzen dirala gurera txerri-erregaloak, eta ordainetan izaten dirala oiek.

Nere txerria, dakizunez, koxkorra da, ta aundiena izan-da ere, ez litzake zor guztiak ordaintzeko lain. Eta aserreak ditu orrek. Eta neretzako ere, ez litzake azkazalik ere geldituko...!

—Egia diozu, On Krixpin.

—Eta zer egin nezaket nik...? Ixillean iltzen baldin ba'det ere, ez ote'du bateren-batek sukandirik joko...?

—Ni ez beintzat, On Krixpin. Baiñan ez nizuke nik, ori egitekorik esango.

—Zer-beste egin dezaket, ba...?

—Nik, zu izatea, egun argiz ilko nuke txerri ori, ta mundu guztiaren aurrean gaiñera. Baratzaiko ate-ondoan ípiñiko nuke gero, ta antxen utzi gauean ere.

Goizaldean jaso, ta lapurtu egin dizutela, esan gero.

Neri ez liket ori, iñonk sinistuko, zuri, ordea...

—Baiñan gezurra esatea, izango litzake ori. Ta apaiz bat gezurretan...

—Etzaio iñori kalterik egiten, ordea. Ta iñori kalterik egiten ez dion gezurra, ez da gezurra...!

—Gezurra bai, Pernando, gezurra bai...!

Gezurra izango zan, bai...! Ta, ala ere, Pernando'k esandako guztiak egin zituan, zintzo-zintzo, On Krixpin'ek.

Pernando'ren etxean zan urrengo goizean, «matutia» jo-aurretik.

—Txerria ostu didate, Pernando...!

—Orixe da, zuk esan bear dezuna...!

—Ez naizela gezurretan ari... Bene-benetan ari naizela, Pernando...!

—Sinisten dizut, bai... Ta besteeri, ere, orrelaxe esaten baldin ba'diezu, ez du iñork, gezurretan ari zeranik, sinistuko.

—Ez naizela gezurretan ari, Pernando. Goizeko irurak-edo izango ziran, txerri ori izkutatzera, jeiki naizenean, eta an etzegoan txerririk. Norbaitek eraman du ordurako, berpiztu ta igesi joan ez baldin ba'da beintzat.

—Lenengoa litzake, On Krixpin...! Eta emen zauden ezkerro, mesede bat egin bear didazu...

—Zuk esango dezu, Pernando...

—Nik ba'dakit, nere susmorik ez dezula. Ta ala ere, nere etxe ontako zoko guztiak maitzea nai nuke, nere pakerako...!

—Zure pakerako baldin ba'da...

Eta Pernando'ren etxeko zoko guztiak ikusi-ondoren «matutia» jo, ta elizan sartu zan ordu-rako...

—Barkatu, Krixpin, esan zion Jesus'ek. Baiñan poz audi bat izan diat gaur-goizean.

—Txerria ostu didatelako, noski...!

—Bai, Krixpin, bai...! Ta mesede galanta egin dik lapurrak edo dalakoak.

—Zergatik, Jauna...?

—Zergatik izango dek, bada...! Ba al'dakik zenbat-gezur esan bearko itukan bestela...? Ta nori, ta ire eliztarrei gaiñera...!

—Egia esango dizut, bada. Jauna... Nik-neronek, ere, ez det lo-geiegi egin bart, eta orretxegatik gaiñera. Gezurra esate ori etzitzaidan batere atsegin. Eta poztu egin naizela gaur-goizean, esango nuke, txerririk ikusi ez dedanean...

—Ondo zegok, Krixpin. Eta ez adi estutu. Pazkoetan jakingo dek-eta, nor izan dan lapurra.

—Dana dala, on egin dezaiola nere txerriak.

Eta, no la ez...? Urte ark, ere, izan zuan bere garizumea. Ta garizumeak, bereak zituan txarteleta, urtean-beingo aitorketa ta urtean-beingo jaunartzea.

Eta oar bat zor diet orain, txarteleta ezagutu duten irakurle gazteeri.

Kristau-ikasbide-azterketa bat zan txarteleta. Sakristin egiten zan, eta parroko guztiak igaro bear izaten zuten azterketa ontatik: zaar eta gazteak, gizon eta emakumeak, ezkonduak eta ezkongaiak.

Galdera batzuek egiten zitzairen, eta galdera aueri ondo erantzuten zuteneri, txartel bana ematen zitzairen: Pazko-jainartzea egiteko agiri bat alegia.

Pernando'k, kristau ona zanez gero, zintzo betetzen zituan oitura auek, eta, sinis-gaitza izan arren, «kalabaza» ederra eman zion, bein, On Krixpin'ek, eta bai Pernando'k ondo apendu ere.

Ba'zituan On Krixpin'ek, bere baratzan, kalabaza bi. Ta aientxen arrotasuean bizi zan gizajoa.

Kattalin'engana joan eta onela esan zion Pernando'k:

—Zure nagusi orrek, nor kalabaza aundiagoa ekarri, egin du trabes kanpotar batekin, eta, bietan-aundiena eramateko, agindu dit.

Eta bai eraman, ere, Pernando'k.

On Krixpin'ek etzuan, au besterik, esan:

—Kalabaza-zalea izango da, benetan, Pernando ori. Txarteletan eman diodana, txikia iruditu zaio noski, ta aundiagoaren billa etorri da onera.

Eta etzuan begitik-urruti asarrezko malko bat.

Baiñan leengo kontuak dira auek.  
Aurtengoak berriz...

—.....

Errespetoa ekartzen diot  
erantzirikan txapela,  
dotriña pranko ba'dakit eta  
eman bear dit txartela

—Ederki, Pernando. Ta zer nai zenduke galdetzea...?

—Txartela eman, eta bialtzea...!

—Ez galdera batzuek egin-gabe, beintzat.

—Galdetu, bada, On Krixpin.

—Ea, bada, Pernando. Zer gauza da dolorea...?

—.....

Zer gauza dan dolorea...?  
ez edukitzea ezer gordea;  
jan-bearra ta errotan laborea,  
ori izaten da gure dolorea.

—Benetan ari natzaizu Pernando, ta...

Esan bear dirazu  
ixtante batean,  
liburutik txartela  
nik atera artean,  
nola sinisten dezun,  
zuk zure artean,  
daudela iru persona  
Jaungoiko batean.

—.....

Nola sinisten dedan  
arrazoiarekin  
orain esango diot  
sagartxo batekin.  
Usai ta saborea  
kolorearekin  
orra iru genero  
gauza bat batekin.

Txarteletak, ordea, aitorketa eskatzen zuan ondoren. Eta ba'zuan Pernando'k, aitorketa ontarako, bildur-antzeko bat.

Eta ala ere, onela agertu zuan, aitor-lekuan zai zeukan, On Krixpin:

—.....

Nere aitorpen oek  
dirade bakanak  
ez nekatutzearren  
abadetxo jaunak.

Sarriago egin lezazke  
gogo daukanak,  
urtean bein egiten ditut  
animako lanak...!

Eta On Krixpin galdetu, ta Fernando'k erantzun, iritxi ziran zazpigarren agindura:

—Eta ezer ostu dezunik, Fernando...?

—Bai, Jauna, bai...! Ta orretzek ematen dit lotsa. Ni izan nintzan zure txerriaren lapurra, ta nere uzkur-umearen seaskotxoan koltxoitzat neukan, nere etxeko zokoak maitzeko, eskatu nizunean.

—Ez nuan bereala billatuko...! Orregatik egingo zuan orrenbeste negar zure -uzkur-umeak. Koltxoi gogorra izaki txerria...!

—Baiñan, nere ustez, izan nituan lapurreta ori egiteko, iru arrazoi.

—Bai...?

—Bai, On Krixpin, bai...! Zure etxean baiño premi geiago egiten zuan txerri ark gurean; etzizaidan ondo iruditzen apaiz bat gezurretan, eta lapurreta ori oso-errez barkatuko zidazula, ziur-ziur nengoan...

—Bai, Fernando, bai...! Aspaldi barkatu nuan lapurreta ori, ta lapurra nor zezakean, jakin-gabe gaiñera. Ta zu izan ziñala jakin-da gero, nola ez? Arrazoi dezu, Fernando, txerri batek ez du apaiz

baten gezurrik merezi. Ta goazen zortzigarren agindura...

—Ez, On Krixpin, ez...! Ba'det, oraindik, zazpigarrenean beste-zerbait.

—Beste lapurretaren bat...?

—Ez ainbeste, jauna...! Ta orretzek ematen dit amorrua...! Lapurreta bat egin, eta aitortzea, bidezkoa iruditzen zait... Baiñan lapurretarik egin ez, eta aitortu bear au, etzait ain-bidezkoa iruditzen.

—Ez dezagun deborarik galdu, ta esaidazu garbi, esan bear didazun ori, Fernando...?

—Ara, bada, On Krixpin...! Etorri zan, nere nagusiari arkume bat eramateko ordua ere...! Ta nere artaldekoak ain-txikiak ziranez gero, auzoko artaldetik artu nai izan nuan bat...! Artu nai bai, baiñan ezin artu. Sarrerako langaraño ekartzen nuan... Baiñan ain-tarte estukoa zan langea...! Ta bertan utzi bear izan nuan azkenean...

Eta nik ez dakit, ez ote'zion On Krixpin'ek, txerriarena apendu nai izan...!

—Ori ezin barkatuko dizut txerriarena bezela... Ta pekatuako, intzenzinoa naikoa dala, ondo dakizu zuk, Fernando.

—Bai, ba'dakit, Jauna...!

—Duro bat eman bear didazu, bada, zure pekatu orren barkapenerako, bi meza atera ditzadan...!



Eta duro billa ekin zion Fernando'k.

—Geroago eman-da ere, berdin zait, Pernando...!

Eta «absoluzioa» artu zuanean, emakumeak aitortzen diran tokian belaunikatu zan Pernando, ta saretik eskeitzen zion duroa On Krixpin'i.

—Ortik ez, Pernando, ortik ez...!

—Emendik izan bear du, bada, On Krixpin...!

—Ortik ezetz...! Ortik ez bait-dago dirua artzerik...!

—Emendik artzerik ez ba'dezu, bada, durorik gabe gelditu bearko dezu zuk ere, ni arkumarik gabe gelditu nintzan bezelaxe... Ta baterako intenzioa naikoa baldin ba'da, naikoa izango al da besterako ere... Ta datorren urteraño, On Krixpin, Jaungoikoa'k nai baldin ba'du beintzat.

Lanak bukatu, ta etxerakoan, dei egin zion Jesus'ek On Krixpin'i.

—Zer-moduz konpondu aiz, bada, Pernando'kin...?

—Nork...? Eta zuk galdera ori...?

—Zer, ba, Krixpin...?

—Ez al'dira, bada, ixilik gordetzekoak, konfesioko gauzak...?

—Bai, Krixpin, Bai...! Ta barkatu nere galdera...!

—Barkatua dago, Jauna...!

#### IV

Etziran saltsa guztiak Pernando'k sortuak izaten. Sartu ere, egiten zuten iñoiz saltsa oietan.

Amar urte luze Ameriketa'n egin, eta Amezketeta'n agertu zan, berriro, Mendizabal'go Joxe Inixio, lastozko kapela buruan, eta urrezko katea txalekoan.

Txanponak ematen zioten arrotasunak eraginda-edo ostatuan agertu zan bein, eta ostalariari au esan:

—Ameriketa'ra joan-aurretik, zortzi arrautza-prejituak jan nituan emen, eta ez nituan ordaindu...! Aietzek ordaindu nai nituzke orain...!

Ostalaria, ere, etzan atzera-begira egotekoa, ta «esne-saltzaillearen» ipui berri bat asmatu zion.

—Ara bada. Zortzi arrautza aietatik, zortzi txita-txiki sortuko ziran, eta txita auek ollo biur-tuko ziran gero. Zortzi ollo auek, zortzireun arrautza ipiñiko zizkidaten, urtean, gutxienez... Eta mar-txa ontan, zuk pentsatu, amar urte auetan, zenbat ollo ta arrautza izango nituan, zuk jandako zortzi arrautza-prejitu aietatik.

Orregatik, eta geiegikeririk gabe, ipiñi deza-gun amabost-milla pesetaetan zure zor ori...

—Amabost-milla pesetaetan...?

—Bai, gizona, bai...! Ta ez det uste, luze jo dedanik...!

Eta bien-artean sortu zan estabaidak, etzuan azkenik izango, an-bertan zegoan batek itza atera ez ba'lu.

—Zuek-biok ez dezute auzi au erabakitzerik, eta beste au izango dezute onena: ipiñi ezazute, zuetako-bakoitzak, gizon bana, ta izan dedilla On Krixpin irugarren gizona. Ta onek erabaki dezala, gero ,zuen auzi au.

Lege-gizon bat aukeratu zuan ostalariak bere aldetik, eta beste orrenbeste egingo zuan Joxe Ini-xio'k ere, bere lagunetako batek zerbait esan ez ba'lio.

—Ez adi gizon-billa iñora joan. Amezketa'n-bertan dek gizon ori.

—Amezketa'n-bertan...?

—Bai...! Ta oso-pozik artuko dik ire auzi au, ez bait-dek, ondoegi etortzen, ostalariarekin...!

—Eta nor dek, bada, gizon ori...?

—Nor izango dek, ba: Pernando...! Lege-gizon guztiak parregarri uzten dituan gizona...!

—Lege-gizon oietako bategana joan uan bein, zerbait galdetu bear ziolata.

—Zer dezu, Pernando, galdetu zioan lege-gizonak.

—Partikularrik ezer ez, baiñan galdera bat egin nai nizuke...

—Zuk esan, Pernando...

—Besteak, ere, izango dute orrelako zer-edo-zer, baiñan leporaño egin det nik oraintxe...

—Zergatik, ordea...?

—Gizon guztiak bezelaxe, ba'ditut nik nere zordunak eta artzekodunak ere. Nere zordun oiek pake-pakean uzten ditut nik, baiñan gaiñean ditut nik, beti, nere artzekodunak, eta ez naute, egun batean ere, pakean uzten. Eta zer egin dezakedan, jakin nai nuke nik...

—Legez zer egin dezakezun, alegia...?

—Orixe...!

—Legeak ez dizu, ortan, babesik emango, Pernando. Ta au izango litzake, nik emango nizuken,

konsejua: ortzak erakutsi, dirua eskatzen dizuten guztieri...!

—Ortzak erakutsi...?

—Bai, gizona, bai...! Ortzak erakutsi...!

—Konseju oberik ezin eman zenidan...! Eta zer zor dizudan, esan bear didazu orain.

—Bost peseta besterik ez, Pernando...!

Eta lege-gizonari ortzak erakutsi, ta irten zan Pernando lege-gizonaren etxetik.

Pikotxean eta kaka-egíñean arkitu zuan Joxe Inaxio'k Pernando, basarri-ondoko txoko batean.

—Ez zaite orregatik estutu, Pernando. Danok egin-bearreko gauza da ori-ta.

—Barkatu «konpañe», baiñan ori ez da egia. Au beintzat, nik bakar-bakarrik egin bearreko gauza zan.

Eta eldu zan arrautza-auzia erabakitzeko eguna.

Eta ostatuan zeuden, Pernando'ren zai, ostalariak aukeratu zuan lege-gizona ta On Krixpin.

Sekula baiño presa gutxiago, artu zuan Pernando'k. Eta artean goiz ba'litz bezela, txalburu batzuek arrapatzera jexi zan erreka-ondoko potzu batera.

—Zu beti berdin, Pernando, esan zion On Krixpin'ek. Erlojua geldituko zitzaizun noski...!

—Nik ez det erlojurik, On Krixpin, eta ondo dakizu zuk ori...! Beste zeregin batek atzeratu nau.

—Ain-garrantzi aundikoa al'zan zeregin ori...?

—Bai, On Krixpin, Bai...!

—Eta jakin al'dezakegu...?

—Zergatik ez, bada...? Ara, On Krixpin: nere andreak baba batzuek egosi zituan atzo, ta aietzek baratzen aldatzen, egon naiz oraintxe arte-raño.

—Atzo egositako babak...?

—Bai, On Krixpin, bai. Atzo egositako babak...!

—Baiñan, gizona... Zuk jakin bear zenduke bada, egositako babak ez dutela azitarako balio...

—Eta zuk, ere, jakin bear zenduke, On Krixpin, orain amar urte prejitu ta jandako arrautzak, ez dutela txitak ateratzeko balio.

Eta itzik-gabe utzi zituan On Krixpin eta lege-gizona.

Eta auek izkutatu ziranean, txalburu bat sartu zuan Pernando'k bere ardo-ontzian, eta beste iru mai-gaiñeko botellan.

Eta ostalariari dei egin zion:

—Ez det iskanbillarik sortu-nai izan oien-aurrean, baiñan zuk saltzen dezun au, ez da ardoa...!



—Zer da, ba...?

—Ur zikiña...!

—Kontu, gero, diozunarekin, Pernando. Zu etzera onera, ur zikiña edatera etortzen. Ez zenituan bestela, zor dituzun baxi-erdiak, zorko...!

—Eta izaten al'du ardoak txalbururik...?

—Zergatik diozu ori...?

—Nere ardo-ontzi ortan, txalburu bat dago-lako bizi-bizirik...!

—Ez da egia izango...?

—Ikusi besterik, ez daukazu. Ta zenbat ote daude botella barruan...?

—Iru...!

—Ezin dezake onek, onela gelditu, ta parte emetera noa ni...!

—Ez, arren, Pernando...! Egia esango dizut. Gaur-arteraño ez diot, nik, ardoari ur-tantorik bota. Gaur-goizean bota diot zerbait, baiñan garbi-garbia zan, nere ustez...

—Ona-emen argibideak...

—Ara, Pernando, egin dezagun bion-artean tratu bat. Zaude zu ixillik, eta zor guztiak baka-tuko dizkizut nik, eta ardorik onena emango be-ti...!

Bi gertaera auen azken-onak, ondo merezi zuan bazkari eder bat. Eta On Krixpin'enean izango zan, noski, Amezketako goxoena.

Ostatutik irten zanean, Arantzazu'ko bi frai-de ikusi zituan gaiñera, eta fraideak ederragoa

egiten zuten oraindik, On Krixpin'en etxeko bazkaria. Aspaldian, gaiñera, etzan On Krixpin'enean bazkaltzen izan...!

Gogoangarria izan zan, ordea, azkenengoz izan zaneke ura...!

Garrazi- batean agertu zan Mari Joxepa On Krixpin'en etxeko atean, eta, zigor bat eskuan, zetorren Pernando, ere, bere emaztearen ondoren.

—Geldi or, Pernando...!, deadar egin zion On Krixpin'ek. Zer dala-ta zalaparta au...?

—Orrelako emakumeak ez luteke ezkondu bear, izan ere...!

—Zer gertatzen da, bada...?

— Ezer ez...!

—Ezer ez, eta bulla auek...?

—Ara, On Krixpin...! Eguardiko amabiak izanarren, gure etxean ez dezu ezertxo-ere billatuko, ez surik eta ez jatekorik...! Eta bullarik ez ateratzeko diozu gero...!

On Krixpin'en etxean sartu ziran bezein laister. Itzali ziran Pernando eta Mari Jixeparen asareak. Gezurrezkoak bait-ziran...!

Kattalin'ekin gelditu zan Mari Joxepa, ta On Krixpin'ekin Pernando.

Txuliatutzeko gogoan zuan On Krixpin'ek egun artan, eta ollaskoa ekarri ziotenean, bere aldera ipiñi zituan mami guztiak, eta Fernando'ren aldera ezurrak.

Eta zerbait esan bear eta...

—Benetan asarratu zera gaur, beraz...

—Bai, On Krixpin, bai...! Ta eskerrak bidean arrapatu ez dedanik...

—Zer egingo zenion, ba...?

—Zer egingo nion...?, azpil onekintxe egingo dedana: lepoa biurtu...!

Eta bere aldera ekarri zituan Fernando'k mamiak, eta On Krixpin'eri bialdu ezurrak...!

Oraingo-ontan, ordea, ezin zuan, On Krixpin'engana bazkaltzera joateko, aitzakirik asmatu. Ondotxo ezagutzen bait-zuan On Krixpin'ek, eta ezin ari, beste apaiz bati egin ziona, egin...!

—Galdera bat barkatu bear dit, jauna.

—Zuk nai dezuna...

—Auxe da, bada, nik jakin nai dedana: norbait bazkaltzera eraman nai danean, nola esaten zaio erri ontan...?

—Era askotara...

—Bai, baiñan esan bekit era oietako bat...

—Nola esango nizuke, bada, nik...? Nerekin bazkaltzera etorri naiko ba'zenu, poz aundi bat emango zenidake...

—Emango diot, bada, poz ori...

—Zer...?

—Berorrekin joango naizela bazkaltzera...! Orrelako zerbait, nork esango, zai nengoen aspaldian...!

Eta aitzakirik billatu ez ba'zuan ere, On Krixpin'en etxera abiatu zan Fernando eguadiako ama-bietan. Eta etzijoan bakarrik...!

Pozik ikusi zuan On Krixpin'ek. Ostatuko er-teera arrek, ondo merezi bait-zuan bazkari bat...!

Arantzazu'ko fraideak, gazteak izaki, ta jolasean ari ziran erretore-etxeko atarian, On Krixpin ebazle zutela.

—Emen ari giñan gazte biok, atariko atean orpo biak ipiñi, ta nork salto aundiagoa egin. Ez al'zenduke, zuk ere Fernando, gurekin neurtu nai...?

—Eta zergatik ez...! Urteetan zuek baiño geiago baldin ba'naiz ere, aragiz ez naiz. Eta saio bat egiteak, ez du kalterik...!

—Ea, bada...

—Zuek lenengo, gazteagoak zeratelako.

—Eta zeñek baiño zeñek salto aundiagoa egin zuten fraide biak, baiñan atetik kanpo-aldera...

—Zure txandea dezu orain, Pernando...

—Bai...! Ta bazkaltzeko ordua ere ba-dalako, nik egingo dedan saltoa, etxe barru-aldera egingo det...

Eta jan-gelara jarraitu zuan Pernando'k, saltoa egin ondoren.

—Aitaren eta Espiritu Santuaren izenean, Amen.

—Nola...?

—Aitaren eta Espiritu Santuaren izenean, Amen.

—Eta Semea, Pernando...?

—Ortxe-bean utzi det, eta bereala deituko diot: seme, ator i, ere, bazkaltzera...!

Eta ederki jan-edan ondoren, galderaka itto bear zuten Pernando fraide biak.

—Zenbat Jaungoiko dira, Pernando...?

—Zazpi dirala, esango nuke, txarteleta-bildurrik ez ba'nu.

—Zazpi...?

—Bai, On Krixpin, bai...!

—Ea nundik ateratzen dituzun, bada...?

—Nundik...? Aita, Semea ta Espiritu Santua, orra iru; iru persona diferentiak, orra sei, ta Aita Eternoa, orra zazpi...!

—Eta ba'ote da, Pernando, zenbat-eta-geiago kendu, orduan eta aundiagoa egiten dan gauzaren bat...?

—Etzenduteke galdetu, ere, egin bear ori...! Atxurrean egin duan danak, daki ori...

—Atxurrean egin duanak...?

—Bai, gizona, bai...! Artu zazu atxurra; zoaz gure beratzara; asi zaiz lurra kentzen, eta zenbat eta lur geiago kentzen dezun, orduan eta aundiagoa egingo da zuloa...!

—Eta illargiaren pixua...?

—Zuek jakin bear zenduteke ori; liburuetan ari zeratenok...!

—Ez dakizu, beraz...

—Jakingo ez det, ba...!

—Zenbat pixatzen du, bada...?

—Libra bat juxtu-juxtu...!

—Ez ote da gutxitxo, Pernando...?

—Zuek esan...! Zenbat laurden dauzka illargiak...?

—Lau laurden...!

—Eta lau laurden ez al'dira, bada, libra bat...?

—Eta zenbat bide dagoan emendik illargira...?

—Ortxe bai, arrapatu nauzutela. Orixe da, nik ez dakidan gauza bat...! Illargitik onera, galdetu baldin ba'zidazuten...?

—Emendik illargira, edo-ta illargitik onera, berdín izango da noski...?

—Ez da berdín,ez...! Eta ori, ere, ezingo nizuteke kilometroetan esan, beste era batera baik. Eta ez asarratzekotan gafiñera...

—Ez, gizona, ez...! Ez daukagu zergatik asarratu...!

—Entzun ondo orduan. Eguardiko amabiak-laurden-gutzietan, zuetako bat illargitik botako ba'luteke, eguardiko amabi-amabietan ementxe legoke bazkari-zai ...

—Eta orain, bromak alde batera utzita, galdera bat egin nai nizuke, Pernando...! Zuk ondo dakizunez, fraide asko gaude Arantzazu'n, eta gurdika ekarri bear izaten ditugu jatekoak-eta.

Oraindik-orain, bi txas-ontzi gatz erosi ditugu, ta au da arrigarriena: arrak sortu zaizkio gatz orri.

Egin ditugu, arra oiek galduko ote ditugun, egiñalak, baiñan alperrikoak izan dira gure egiñal guztiak.

Ez ote dakizu zuk, ar oiek galtzeko, erremedioren bat, Pernando...?

—Jakingo ez dat, bada...?

—Bai...?

—Bai, gizona, bai...! Mando-esnea naikoa dezute ortarako...!

—Mando-esnea...?

—Mando-esnea, bai...!

—Mandoak ez du, ordea, esnerik, Pernado...?

—Ez e...?

Ez gatzak ere arrik.

Pernando'ren bizkarretik

ez dezute egingo parririk...!

Eta semea artu, ta etxerako bidea artu zuan Pernando'k. Bazkalondokoa bota nai bait-zuan On Krixpin'ek ere...

V

Eta ondo merezia du, Pernando'ren astoak ere, aipamen bat.

ARRE, ASTOA, ARRE...!

«Langille-erreza» zala Pernando, esan degu leen. Eta langille-errezak beti bear izaten du aitzakiren bat, kalez-kale ibiltzeko. Zaku-zaarren bat ez baldin ba'da, beste zerbaít eramango du eskuan, baiñan ez dezu beññere esku-utsik ikusiko.

ARRE, ASTOA, ARRE...!

Eta gure Pernando'k, bere astoa zuan, bere lan-gogo-eskasaren estalgarri... Astoarenkin dijoan



gizonak, beti darama-ta eginkizunen bat...! Ala pentsatzen bait-dute besteak beintzat...!

ARRE, ASTOA, ARRE...!

Eta Naparro'rako biderik artzen etzuala, Amezketa'tik, Alegi'ra, ta Alegi'tik, Billafranka'ra, Tolosa'ra, Ernani'ra ta abar.

Ba'ote zan, orduan, Pernando'k eta bere astoak ezagutzen etzuten biderik...?

ARRE, ASTOA, ARE...!

Eta Alegi'ko kalean txakur bat inguratu zitzaion bein, eta bere praka-barrenak usaitu ondoren, pix-egiten asi...

—Oa emendik, ire nagusiaren mutur orrekin...!

Eta txakurraren nagusiak, ez bat eta ez bi, Alegi'ko ixkribauarengana eraman zuan Pernando...

ARRE, ASTOA, ARRE...!

Alegi'ko ixkribau au, etzan Pernando'ren oso-begiko, ta kalean ikusten zuan bakoitzean...

—ARRE, ASTOA, ARRE...!, esaten zion bere astoari. Emen zerrotek-eta aundi-usteko ori...!

—Ez dakizula, Pernando...

—Etzazu jarraitu, ixkribau jauna. Ez-jakin bazuek bait-gera zuretzat basarritar guztiok-eta...!

—Eta alaxe zerate!

—Ala izango gera, baiñan egingo nizuke ba, nik zuri, trabes bat...

—Nai dezuna, Pernando...

—Etzerala zu, nik nere astoari esaten diodan guztia, papelean jartzeko gauza...?

—Izango ez naiz, bada...

—Arre...!

—Arre...!

—Iso...!

—Iso...!

—Ederki...! Baiñan ikusi dezagun, nola idazten dezun orain, beste au.

Eta mingaiña ao-zapian jarririk, ariñago ibilli dedin, astoari egiten zaion otsa, egin zion, orduan, Pernando'k.

Eta ixkribauak:

—Ori idatziko duan gizonik, ez da oraindik jaiio...!

—Arrigarria da, bada...! Oso-ederki ulertzen bait-dit ori nere astoak...! Ixkribauak baiño jakintsuagoak ote dira, bada, basarrietako astoak...?

—Iseka egin dit gizon onek...!

—Nik...?

—Zuk, bai...!

—Ori ez da egia, ixkribau jauna.

—Iseka bakarrik ez, irain ere bai...! Nere txakurraren muturra dedala, esan bait-dit gizon onek...!

—Ori ere ez...! Antzeko zerbait esan baldin ba'diot ere...

—Eta zer da, bada, esan diozun ori...?

—Barkatu, ixkribau jauna. Baiñan galdera bat egin nai nizuke nik, orain, zuri...?

—Egin, bada, Fernando...!

—Norena izan oi da txakurra...?

—Norena izango da, bada...? Nagusiarena...!

—Eta txakur orren muturra...?

—Nagusiarena ori ere...!

—Orixe da, bada, pix-egin nai zidan onen txakurrari, nik esan niona: oa emendik, ire nagusiaren mutur orrekin...

—ARRE, ASTOA, ARRE...! Or dakarten ori, txakurra baldin ba'dek, zaldirik azkarrena aiz i, ta Amezketako erretorea ni...

Eta alakoxea zan, izan ere, andereño aiek zekarten txakurra: erbia baiño azkoz-txikiagoa luzezabalean, eta arratoia baiño zerbait-geiago aundian.

—Gustatzen, Fernando...?

—Bai orixe...! Txakur-politagorik...!

—Eta orrelakoxea du izena ere: Pitxita...!

—Pitxita...?

—Bai, Fernando, bai...! Pitxita...!

—Kontxo, kontxo...! Ta putzik botatzen al' du orrek, ipurdia itxita...?

—ARRE, ASTOA, ARRE...! Ez al'dek or, Izarre'ko asto ori ikusten...? Ez dik orrek, ik aiñeko, ibil-gogorik...!

—Zer dezu, Joxpantoni...?

—Ai, Fernando, Fernando...! Zer ez ote nioke egingo, gaur, asto madarikatu oni...? Emen-tzen daramat ordu-bete baiño geiago, ez arre ta ez isoo...!

—Ez zaitte estutu, Joxpantoni...! Ba al'darama astoak, austekorik ezer...?

—Ez, Fernando, ez...! Baiñan zergatik galde-tzen didazu ori...?

—Ezergatik ez...! Baiñan laister ikusiko dezu, nolako saltoak emango dituan zure asto onek, nik belarrira esango diodan kontutxo batekin. Eta etzaizu etxeraño geldituko...

Eta pipea piztean, ardagai-zatitxo bati eman zion su, ta uraxe sartu zion belarri batetik, bes-

tetik kontuak esaten zizkion bitartean. Eta ikustekoak izan ziran asto arren ipur-saltoak eta laisterkak.

—Baiñan zer da, esan diozun ori, Pernando...?

—Zer izango da, bada, Joxpantoni...? Urte ona izan dala aurtengoa, ta nai-aña garagar, olo ta arto arkituko dituala ikulluan, beste astorenbatek aurrea-artzen ez diola beintzat...

—ARRE, ASTOA, ARRE...! Martxa ontan etzegok Tolosa'ra eltzerik-eta. Ta berritsu-antzekoak ditut aurreko bi damatxo oiek ere. Ta ez dituk ixillik igaroko...

—Aizu, Pernando...! Lokarriak miñik eman ez dezaion, isats-azpian astoari ipintzen diozun trapu orren kana, zenbatean saltzen dezu...

—Gustatu egin al'zaizute...?

—Bai, orixe...!

—Barkatu, andreak, baiñan ori ez daukat salgai... Ba'ditut, ori baiño obeagoak, denda barruan. Ez al'zenduteke sartu nai...?

—Bai, Pernando bai...! Eta oso-pozik gaitiera...

Eta astoari isatsa goi-goieraño jaso, ta astoaren ipur-zuloa erakutsiaz, onela agurtu zituan, Pernando'k, bi damatxo aiek:

—Orra-or nun dezuten dendaren atea. Sartu zaitezte barrura, ta zuentzako-aña geldituko da oraindik, bear bada...

Eta Tolosa'ra irixtean...

—ISOO, ASTOA, ISOO...!

—ISOO...?

—Bai, astoa, ba...! Ez al'dek, aurreko miketele ori, ikusten...?

—Katea ordaindu bear dezu, Pernando...!

—Zergatik, ordea...?

—Astoa daramazulako...?

—Astoarena, beraz...?

—Bai, gizona, bai: astoarena...!

—Eta nererik ez...?

—Zurerik ez, gizona...!

—Eta zama aundiren-bat bizkarrean barama...?

—Ez da orduan, ere...

—Ondo dago.

Eta astoa bizkarrean artu, ta sartu zan Pernando Tolosa'ra egun artan.

—Aizak...! Orra-or, leengo-eguneko tontoa. Galdetu dezaigun ordua...!

—Oso ederra zegoan, Andreak eta biok jan genduan.

—Etzegok au, tonto txarra...!

Eiztariak izaki, ta aurreko egun batean erbi bat zauritu zuten.

Garotan ari ziran Fernando ta Mari Joxepa. Ta zauritutako erbia ikusi zuanean Fernando'k, rapt!, arrapatu, ta garo-artean izkutatu zuan.

Laister ziran eiztariak galdezka:

—Zauritutako erbirik ikusi al'dezute emen-inguruan...?

Eta Fernando'k:

—Amaikak-edo orain.

—Ordua ba'dakigu, gizona. Zauritutako erbirik, emen-inguruan, ikusi ote'dezuten, jakin nai genduke orain...

Eta Fernando'k berriro:

—Amaika t'erdiak geienaz ere...!

—Au tontoa dek, eta utzi dezaioGUN pakean.

Eta zauritutako erbiaren jabe, utzi zuten, utzi ere...!

Eta ortan ari zirala, lagun bat urbildu zitzaion Fernando'ri:

—I, Fernando...! Ba'diat, etxean, elbarritutako osaba bat. Donostiarra dek berez, ta Ernani'raño joan nai likek gaur. Eramango al'dek ire asto ortan...?

—Ta...?

—Ez adi estutu, gizona. Aitzerik legorrena baiño legorragea dek bera, baiñan, etxetik ateratzearren, pozik emango dizkiat pare bat duro...

ARRE, ASTOA, ARRE...! Gizon au Ernani'n utzi arte...!

Baiñan Ernani'ra iritxi ziranean, Donosti'rako gogo a egin zitzaion gure zaldun lukurrari.

—Ez, ez, erantzun zion Fernando'k. Ernani'raño esan degu, ta kitto...!

—Zer kitto ta kitto-ondo...! Don Juan de Garaioa naiz ni gero...!

—Bai e...?

Don Juan de Garaioa...?

Berdin da baldin ba'da inpernuko arraioa.

Indarrez ez baldin ba'da

ni baiño geiago,

Pernando astoarekin

etxera dijoo...!

ARRE, ASTOA, ARRE...!

Eta egun artan, beti utsik ibiltzen etzala, esa-tearren-edo, zaku bat baba erosi zuan, eman zizkioten bi duroekin.

Eta Alegi'tik igarotzean, zorioneko izkribaua...!

—Peritik, Pernando...?

—Bai...!

—Laboreak zer egin du...?

—Zai ta irin, zai ta irin...!

—Ori ez dizut galdetzen...! Plazako gora-berrak galdetzen dizkizut, gizona...!

—Zaldia gorago, asto txikia baiño...!

—Zer zaldi ta asto...! Zure orrek, beintzat, aurreragi dauzka kargak...!

—Naiago nuke, aurrerago ba'leuzka ordubetako bidean...

ARRI, ASTOA, ARRI,  
illuntzarako ote gatezkean  
atarian jarri,  
ezer irabazten ez degu-ta  
mintzatuarren gizon orri...!

Eta gauza guztietan ain-azkerra izan zan Pernando onek, gauza bat ezin menderatu izan zuan; erdera...!

Etzuan itzik, ere, ikasi...!

Gudari-talde bat etorri zan bein, maniobrak egitera, inguru aietara, ta bidean arkitu zituzten astoak artu zituzten, armak-eta mendi-gaiñera eramateko.

Eta an bear zuan Pernando'k nai-ta-naiez.

Iru asto ziran danak, eta aundia zan mendi-gaiñera eraman bear zan zama.

Pernando'ren astoa, karga ta karga, ari ziran, eta geiago eziñean, onela esan zion Alegi'ko zapatariari:

—I...! Naikoa ba'duala, nola esaten dek erderaz...?

—Nola esango dek, bada...? Más carga, más carga...!

Eta Pernando'k garrazi batean gudarieri:

—Más carga, más carga...!

Eta bai aiek astoa kargatu...!

Asarratu zan Pernando, eta asto-gaiñeko zama guztiak lurrera itzuliaz, onela esan zien gudarieri ta Alegi'ko zapatariari:

Más carga, más carga,  
iru asto ta bost karga...?  
Artutako lekuan deskarga.  
Erri ontan, zapatari  
presturik ez al'da...?

Bera zan, Pernando, zapatari prestu-askoa,  
naiz-eta erderarikan jakin ez...!

## VI

Pernando'k etzuan zaartzeko astirik izan. Urteak ez-bezela makaldu zuten beste gauza askok...!

—Ai, On Krixpin, On Krixpin...! Zartuta ni bi aldiz ume biurtu. Mami danak urtu, azala zimurtu, ezurrak agertu, gerria okertu, bizkarra makurtu, belarriak gortu, bixta laburtu, junturak legortu, aizea samurtu, oso naiz bildurtu.

Ia ez daukat, bada, zerekin poztu...!

Aia ere munduan ezin aspertu.....!

Baiñan etzituan bere ardiak utzi, gauza izan zan bitartean. Eta an joango zan illuntzero, kiau eskuan, ardiak jeistera...!

Ba'zuan ardi auetan, ordea, oso-izua zan bat. Kaikua ikusi orduko, artegitik iges egiten zuan ardia.

Illik arkitu zuan bein, otsoak erdi-janik, eta, begira-begira, onela esan zion samurkiro:

—A, txepela...! Bart arrapatu aun orrek, ez al'zian kaikurik...?

Eta ardi auetxek izan ziran, Pernando betiko zorretan sartu zuten ardiak, eta gaixo-aldietan es-tuasun aundiena ematen ziotenak ere. An agertzen bait-zitzaion beti, oe-ondoan, dirua aurreratu zion gizona...!

Gaixo-aldi batean, eta gizontxo ori oe-ondoan zegoalako-edo, onela esan zion, bein, On Krixpin'i:

—Onetxi ordaindu-arteko bizia emango ba'lit Jaungoiko gure jaunak, orduantxe ilko nintzake pozik...!

Eta On Krixpin'ek goxo-goxo:

—Etzaitte bildurtu, Pernando. On-ona da gure Jaungoikoa, ta berak emango dizu, zure zor oiek ordaintzeko, naiko asti...!

Eta itz auek entzutean, irten egin zan, Pernando'ren gelatik, diru-billa joan zan gizon ura, ta orduan Pernando'k On Krixpin'i:

—Ai, On Krixpin, On Krixpin...! Nere zor guztiak ordaintzeko-aíña asti ematen baldin ba'dit gure Jaungoikoa'k, zuk ez dezu nere entierroa kobratzerik izango...!

Ala ere, bere kezkatxoa ematen zioten Pernando'ri zor auek, eta, nola edo ala, zor auen barkapena irixtea, erabaki zuan.

Bi laguneri dei egin zien ortarako, ta laguntzeko eskatu...!

—Guk ez diagu, ordea, dirurik...?

—Eta nork aitatu dik, emen, dirua...? Era askotako laguntzak izaten dituk, eta nik eskatzen dizuedana, ez det diru-laguntza...!

—Nolako laguntza dek, bada...?

—Zuek ondo dakizute, zeíñekin naizen zordun ni... Oe-ondoan ikusten diat gaixo-aldi ba-koitzean, eta asperturik naukak oraintxe... Aren-txengana joan bear dezute bada, ta auxe esan bear diozute: Ara, jauna, Pernando ta irurok zuregana gentozen oraintxe. Ordaindu egin nai bait-zizki-zun bere zorrak, eta gu nai genituan lekuko... Baiñan Iturri-otzean ur pixkat edan dualako-edo, zerraldo erori zaigu bertan... Eta il ez ba'da ere, ez du asko luzatuko...!

—Ez ote'dek ori geitxo, Pernando...?

—Zuek ori egiten dezutela, utzi zazute beste guztia nere gain...!

Eta an joan bear izan zuten lagun biak, Pernando'kin gaizki ez-gelditzearren...!

—Gizarajoa...!, esan zien jaun arek. Eraman nazute azkar-azkar iturri ortara, ea zer-edo-zer egin dezaiokegun...!

—Il-kanpaia jo, besterik ez...!

—Goazen, ala ere...!

Eta an arkitu zuten Pernando, iturri-ondoan luze-luze etzanik, ta ildakoen ezaugarri guztiekin...

—Makiñabat-par eragindako, Pernando gizarajoa... I, ere il bear intzan, eta il aiz...! Jaun-goikoa'k barkatuko al'dizkik ire zorrak, nik barkatzen dizkiadan bezelaxe...

—Barkatzen dizkiozu, beraz...?

—Barkatuko etzizkioat, ba...! bai, gizona, bai...!

Eta ori entzun bezein laister zatitu zan Pernando, ta onela esan zien bere laguneri:

—Zuek lekuko...! Ez dezala gero, barkatu ez didanik, esan...!

Eta gizon guztieri bezelaxe, etorri zitzaion Pernando'ri ere, mundu au agurtu-bearreko eguna.

Eta esaten dutenez beintzat, arana geiegi jan-ondoren, Goen-errekan ura edan zualako, gazkitu omen zan Pernando.

Baiñan etzuan bere umore ona galdu, ala guztiz ere.

Eta onela esan omen zion On Krixpin'i azken orduan:

—Ni iltzen naizenean, esan, gero, argi-asko alde guztietan, Pernando ez duala goseak il. Beti erdi-gose ta mixerin bizi izan ba'naiz ere, ondo aseta il naizela...!

1823-garren urteko Uztailla'ren 9'an il zan.  
Eta 58 urte zituan...

GOIAN BEGO,  
AMEZKETA'KO PERNANDO.....!



## KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**  
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta.  
(Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).
- 2.º **NEURRIZTIA**  
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º **SUGE GORRI**  
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º **ESPALAK**  
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º **AITONAREN IPUIAK**  
(Ramon Murua).
- 6.º **ERREKA-ZULOAN eta...**  
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º **1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE**  
(Larrañoetxea, Bedita).
- 8.º **LANDARE-JAKINTZA**  
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º **GARTZI-XIMENO eta...**  
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**  
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º **2 - KOMEDIAK**
- 12.º **3 - DRAMAK**
- 13.º **4 - DRAMAK**
- 14.º **5 - TRAJEDIAK**
- 15.º **6 - TRAJEDIAK**

SHAKESPEARE

## KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º **KARDABERAZ**
- 2.º **UME TXIKIENTZAKO SOINKETA**
- 3.º **EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK**  
(A. Arrinda).
- 4.º **KARDABERAZ - 2.**

## KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan, Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean

b) Kristau-pentsakera barruan (ezi zabal) lan egiteko.

*Bazkideak* (gizon ala emakume) milla pta. ordainduko dute sarrerako ta beste milla urtero. Diru oiekin ateratzen da KARDABERAZ BILDUMA, bazkideentzako ezean.

*Arpidedunak* (bazkide nai ez dutenak) liburuak artzera beartzen dituzte beuren buruak.

Bazkide nai arpidedun egiteko nora jo?  
Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus  
Técnicas de Difusión.  
San Francisco, 1.  
Apdo. 83.